



## Adi!



Ez erabili pestizidarik edo ongari artifizialik.

Ez sartu arrainik (karpak etab) faunarentzako eraikitako putzuetan.

Ez egin lorategi jasangarriak katuak baldin badaude.

Ez moztu belarra etengabe.



### Beste funtsezko puntu batzuk

- Landare belarkarak, zuhaixkak eta fruta-arbolak nahastu.
- Landare hilak udaberriaren hasieran bakarrik kimatu eta garbitu.
- Zure etxera hurbiltzen den faunarentzat babeslekua sortu (habi-kutzak, hibernakula anfibioentzat edo intsektuen hotelak).



**Gehiago ikasi edo laguntza nahi duzu? Esaiguzu!**



[muskerraknatura@gmail.com](mailto:muskerraknatura@gmail.com)



[@muskerraknatura](https://www.instagram.com/muskerraknatura)



[muskerraknatura.eus](https://muskerraknatura.eus)



This template was created by **Slidesgo**

# Lorategi jasangarri bat egiteko gida azkarra: Funtsezko aholkuak



Lursail bat, terraza bat edo balkoi bat baduzu, zure aletxoak jar dezakezu planetari laguntzeko.





## Bertako landareak bakarrik



Landare natiboak eskualde batean modu naturalean hazten direnak dira. Euskadin, belarkarak (oreganoa), zuhaixkak eta zuhaitzak (udareondoa eta basa-arrosa) daude. Landare exotikoek gure ingurunea hondatzen duten substantziak eta patogenoak sartzen dituzte.



### Eta are hobeto...



Lortu zure landareak inguruko haztegietan.



Pestizidarik erabiltzen ez duten eta aldaki basatiak dituzten haztegiak aukera itzazu.



Zalantzarik izanez gero, begiratu Loidi et al-en gida (Euskal Autonomia Erkidegoko landaredia)



## Fauna urez eta etxez hornitu!

### Eta beti irteera seguruarekin!



Edontzia eta/edo putzua beti garbia eduki, eguneroko aldaketen bidez edo aireztagailu batekin.

Putzu bat baduzu, naturalizatu, bertako uretako landareak eta adarrak sartuz.



Zure ur iturria itzalean kokatu.

Ez bihurtu zure putzua tranpa batean, eta gogoratu edozein ur-iturrik, txikia edo handia, irteera izan behar duela biztanle guztientzat.



## Konposta egin!

Konposta ongarri eraginkorra da, produktu artifizialak baino askoz hobea eta egokiagoa.



### ¡Aukera asko daude!

- Lekua baduzu, konpost tradizionala egin dezakezu, fauna askori etxea ematen diozun bitartean.
- Pisu batean bizi bazara, zizare-etxalde bat izan dezakezu, umeei animalia horien eta lurraren funtzionamenduari buruz irakasteko balio duena.



### Emaiozu egokia dena!

Konpostontzi mota bakoitzari hobeki doazkion hondakinak aztertu (adib. *Manual de compostaje* de Amigos de la Tierra).



### Zaindu



Begiratu konpostaren egoera, usain txarrik edo ondo edo intsektu gehiegi ez izateko.